

I. KAPITULUA

II. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Araudiaren xedea.

Gizarte Zerbitzuetako sailaren bitartez Arrasateko Udalak ematen duen Etxeko Laguntza zerbitzua arautzea da Araudi honen xedea.

2. Artikulua. Etxeko Laguntza zerbitzuaren definizioa.

Izaera sozialeko komunitate zerbitzua da Etxeko Laguntza zerbitzua. Prebentzio, hezkuntza eta laguntza arloko banan-banako laguntza bat eskaintzen die zerbitzu horrek bakarrik dauden familia edo/eta pertsoneri, haien ongizate fisikoa edo soziala mantentzeko edo lehen ziren bezalakoak izateko zailtasunak dituzten pertsoneri, eta horrela, haien etxean edo/eta ingurunean bizitzen jarraitzen laguntzeko, ahal den bitartean eta komeni den moduan.

Laguntza "txiki" bat da autonomia galera jakin batzuk ordezkatzeko, izan ere, erabiltzaileen eta ingurune sozialaren bizi kalitatea murrizten dute autonomia galera horiek, eta horregatik, ez da beti erantzun egokia ezintasun ertain edo handiko egoeretan edo ez da egokia eguneroko bizitzan ondo moldatzea baino harantzago dauden arazoetarako.

Azken baten, eguneroko bizitzako lanak egiteko ezinean dabilzan pertsonen autonomia falta beteko du Etxeko Laguntza zerbitzuak.

Edozelan ere, hala eskatzen duten gora-beherak izaten direnean, zerbitzuak berak eman beharko ez lituzkeen egoerei erantzun ahal izango die zerbitzuak, kontuan izanik zerbitzuak zein definizio duen (ezintasun ertain eta handiko egoerak, e.a.). Horixe egingo du zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuetako batzordeak halaxe iritzi diolako eta proposatu duelako, eta udal organo eskudunak halaxe erabaki duelako, beste baliabide egokiagorik ez dagoenean edo ematerik ez dagoenean.

3. Artikulua. Helburuak.

Helburu sozial hauek lortu nahi ditu laguntza zerbitzuak:

- Gora-behera sozial edo ezintasuneko ondoz independentzia mugaturik duten pertsonen marginazio, isolamendu edo abandonu arriskua saihestea.
- Etxeko Laguntza zerbitzuaren bidez, erabiltzaileak berak berez ezin duena egin samurtzea, haren gaitasunak garatu eta berrindartzeko.
- Menpekotasun maila apurren bat izan arren, ezinbesteko gutxieneko bat duten pertsonak edo zerbitzua osatu dezaketen familiakideen edo beste pertsona batzuen laguntza solidarioa duten pertsonak Zaharren Etxeetan sar daitezen saihestea edo sartze hori atzeratzea.
- Pertsona edo familiaren eboluziorako osasungarriak ez diren bizi ohiturak sortzen dituzten ohitura okerrak zuzentzea.
- Autonomoak izateko mugak dituztelako, laguntza hori gabe autonomiarik ez duten pertsonen autonomia eskubidea errespetatzea.

4. Artikulua. Kudeaketa.

Zeharka kudeatuz emango da Etxeko Laguntza zerbitzua, kontzesio administratiboaren bidez, eta erabiltzailea aukeratzeko irizpideak, zerbitzuaren funtzionamendua eta zerbitzuaren kalitatearen kontrola erreserbatuko ditu Udalak.

II. KAPITULUA PERTSONAK

5. Artikulua. Zerbitzuaren subjektuak.

Subjektu moduan, pertsona multzo hauek esku hartzen dute zerbitzua emateko:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- Arrasateko Udalak.
- Zerbitzua ematen duenak.
- Zerbitzuaren erabiltzaileak.

1. SEKZIOA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

6. Artikulua. Foru Aldundiaren eskumenak.

Eskumen hauek erabiltzea dagokio–Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako saila–GIZARTEKINTZARI:

- Jarduteko irizpide orokorrak ezartzea, zerbitzua emateko.
- Zerbitzua sustatu, koordinatu eta programatzea udalez gaindi.
- Ikastaroak antolatzea, zerbitzua ematen duen pertsonala prestatzeko.
- Zerbitzua diruz laguntzea.
- Zerbitzua hobetzen laguntzen duten estatistikak eta azterlanak egitea.

2. SEKZIOA: UDALA

7. Artikulua. Udal eskumenak.

Eskumen hauek erabiltzea dagokio Arrasateko Udalari:

- Zerbitzua kudeatu eta gauzatzea.
- Udalerrian dauden beharrak detektatzea, zerbitzuarekin lotutakoak.
- Zerbitzua finantzatzeko dauden baliabideak koordinatzea.
- Definitzea, batetik, erabiltzaileari laguntzeko maila eta, bestetik, laguntza horren intentsitatea.
- Onuradunen diru aportazioa zehaztea.
- Herrian dauden beste zerbitzu osagarri batzuekin programa koordinatzea.
- Udal zerbitzuari ez dagokionean, zerbitzua emateko eskaria bideratzea.
- Etxeko laguntzaileak aukeratzeko, zerbitzuaren kontzesionarioak aplikatu behar dituen irizpideak ezartzea.
- Sustatzea, batetik, prestakuntza ikastaroak antolatzea zerbitzua eman behar duten pertsonentzat eta, bestetik, pertsona horiek joatea Foru Aldundiak antolatzen dituen ikastaroetara.

8. Artikulua. Udal eskumena erabiltzea.

Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeak erabiliko du udal eskumena.

9. Artikulua. Gizarte laguntzailearen egitekoak.

Zerbitzua eskatzen duenaren bizitzakoak diren aspektu guztiak hartuko ditu kontuan gizarte laguntzaileak (identifikazio datuak, familia, osasun, ekonomia, etxebizitza egoera, harreman sozialak, kultura maila, e.a.); forma jakin bat emango zaio zerbitzuaren helburuari, egiteko hauen bidez:

- Agian laguntza behar duten kasuak detektatu eta aztertzea.
- Familiaren erantzukizuna bultzatu eta haren alde egitea, familia duenean, aspektu materialetan nahiz afektibo eta ekonomikoetan.
- Kasu bakoitzean zerbitzuaren helburuak eta intentsitatea ezartzea; horiek guztiak zerbitzua erabiltzeko kontratuan jasoko dira, eta kontratu hori esku hartzen duten hiru aldeek sinatu behar dute, Udalak, erabiltzaileak eta kontzesionarioak.
- Eman beharreko laguntzaren intentsitatea proposatzea.
- Ematen zaio zerbitzuaren truke, erabiltzailearen diru aportazioa proposatzea.
- Kasuaren ezaugarrien berri ematea etxeko laguntzaileari; zerbitzua ematean kontuan hartu behar diren jardun jarraibideak ezarriko dira.
- Zerbitzua zenbat eta zelan betetzen den kontrolatzea.
- Lagundutakoekin aldiari-aldiari harremanak izatea; horren bidez, erabiltzailearen satis-

- fakzio maila jasoko dute.
- Zerbitzuarekin lotuta dauden intzidentzia guztien berri ematea Gizarte Zerbitzuetako batzordeari, eta egoki diren proposamen teknikoak bidaltzea, diktamena egin eta onartzeko.
- Eskatu dakizkiokeen beste batzuk.

3. SEKZIOA: ZERBITZUAREN KONTZESIONARIOA

10. Artikulua. Kontzesionarioaren eginbeharrak.

Hauek dira kontzesionarioaren eginbeharrak:

- Kontzesioaren xedea eta hor ezarritako mugak errespetatzea; arreta bereziaz egingo da zerbitzua, eta uneoro behar den moduan ematen dela bermatuko da, ikuspuntu materialetik nahiz afektibotik eta hizkuntzarenetik.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak emandako norabideak betetzea.
- Kontzesioak dirauen epean emango du zerbitzua kontzesionarioak, eta haren kontura doaz, batetik, sortzen diren gastuak eta, bestetik, tributuak.
- Kontuan izanik, besteak beste, gora-behera profesional, pertsonal, e.a.en arabera ematen dela kontzesioa, ezin izango zaio beste bati eskualdatu.
- Jarduera Ekonomiko eta Profesionalen gaineko Zergan alta emanda egotea, eta estatuko, probintziako eta udalerriko zerga eta tasei erantzutea. Halaber, egunean egotea Gizarte Segurantza eta Laneko Prebisio eta Seguratasuneko obligazioei buruz, zerbitzua betetzeko behar den pertsonalari dagokionez.
- Zerbitzua emateko behar den pertsonal guztia jartzea uneoro, zerbitzua behar den bezala emateko, eta nahitaez bete behar ditu, etorri ez direlako, bajaran daudelako edo beste kausa batzuk direlako, izan daitezkeen pertsonal bakanteak.
- Zerbitzuaren funtzionamenduak kalterik sortu badu, kalte horiek ordaintzea kalte horiei, ezinbestean Udaltzako ezarritako klausula bat betetzeko egindako egintza baten ondorioz geratzen den kasuetan izan ezik; horretarako, erantzukizun zibileko poliza bat sinatu behar du, erantzukizun hori estaltzeko.

11. Artikulua. Etxeko laguntzailearen eginbeharrak.

Zeregin hauek ditu etxeko laguntzaileak:

- Erabiltzaileari laguntzeko eskatu zaizkion zereginak betetzea; zerbitzua erabiltzeko kontratuan laguntza horretarako ezarri diren ordutegiak, zeregin bereziak eta helburuak bete behar dira.
- Zerbitzua behar bezala emateari eragiten dioten gora-beheren berri ematea gizarte laguntzaileari.

4. SEKZIOA: ZERBITZUAREN ERABILTZAILAK

12. Artikulua. Erabiltzaile motak.

Arrasate herrian bizi diren pertsonak dira zerbitzuaren ustezko erabiltzaileak. Biztanleen udal erroldan egon behar dute izena emanda, eta gutxienez bi urteko antzinatekin; bakarrik bizi direnak edo haien familiakideek lagundu ezin dituztenean, beti ere zailtasunak badituzte berez baliatzeko edo jarduera jakin batzuk egiteko. Hauetako talderen batean egon behar dute:

- Hirugarren Adinekoak.
- Elbarri fisiko, psikiko eta sensorialak, baina ez elbarri direlako, ezintasuna dutelako baidirik.
- Gaisoak: gaisotasun edo lesio batek eragindako pertsonak; denbora batez beste pertsona bat behar duten pertsonak.
- Arazo sozial nabarmenak dituzten familiak edo helduak; kultura aldetik edo pertsona moduan mugaturik daude eta, hortaz, bizi ohitura kaltegarriak dituzte, pertsona behar bezalako garatzeko.
- Gizarte Zerbitzuetako batzordeak baloratu ditzakeen beste batzuk.

13. Artikulua. Erabiltzaileen obligazioak.

Zerbitzua egiteko behar diren baliabide materialak jarriko ditu erabiltzaileak etxeko laguntzailearen esku; besteak beste, hauek egongo dira nahitaez: ur beroa, garbigailu automatikoa eta garbigarriak eta garbitzeko materiala. Bazkaria prestatzea sartzen bada zerbitzuan, be-

har den janaria eta sukalde menajea jarri behar du erabiltzaileak etxeko laguntzailearen eskura.

14. Artikulua. Erabiltzaileak aukeratzeko faktoreak.

Hauek dira pertsona batek Etxeko Laguntza zerbitzuaren beharra duela aitortzeko dauden faktoreak, bai eta zerbitzuaren intentsitatea eta iraupena ere:

- ✓ Egoera psiko-fisikoa.
- ✓ Egoera sozio-familiarra.
- ✓ Egoera ekonomikoa.
- ✓ Komunitatean dauden baliabideak.

Aipatu faktore guztien arteko balorazioaren ondorioz, aurkeztu den beharraren maila balioet-siko da.

III. KAPITULUA ELEMENTU OBJEKTIBOAK

15. Artikulua. Zerbitzuan sartzen diren prestazioak.

Zerbitzu hauek hartzen ditu Etxeko Laguntza zerbitzuak:

1. Pertsonari laguntzeko zerbitzua, lan hauek egingo ditu etxeko laguntzaileak erabiltzailearentzat:
 - ✓ Ohetik irteten laguntzea eta ohean sartzea.
 - ✓ Jaztea eta arropa eraztea.
 - ✓ Jaten laguntzea.
 - ✓ Norbere higieena.
 - ✓ Erabiltzailearekin egotea, hitz egitea eta komunikatzea, bai eta pertsona hori zaintzea ere, zahar zorotasun baten edo buru nahasten baten ondoriozko kasuetan, lagundutako pertsonaren jokaerak bere burua arriskuan jar dezakeenean.
 - ✓ Herriko zentro medikoetara eta ospitaletara joan-etorrietan eta oro har irteeretan laguntzea, medikuak halaxe aginduta edo beste mota bateko gestioak egin beharra dituelako.
 - ✓ Bizitzeko ohituretan hobetzen laguntzea, eta gaitasuna sustatzea.
 - ✓ Erabiltzaileak berak bakarrik erabiltzen dituen logela eta bainu gela garbitzea.
 - ✓ Etxeko zereginetan laguntzea, ikas dezan. (Hezkuntza-erreabilitazioko zeregina)
 - ✓ Etxearen administrazioaren hezkuntza jarraipena egitea. (Hezkuntza-erreabilitazioko zeregina)
 - ✓ Beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk.
2. Etxeko gauzen zerbitzua, etxeko laguntzaileak etxeko lan hauek egingo ditu erabiltzailearen etxebizitzan:
 - ✓ Etxea garbitzea.
 - ✓ Arropa garbitu, lisatu eta erreparatzea.
 - ✓ Erosketak egitea.
 - ✓ Bazkaria prestatzea.
 - ✓ Beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk.

16. Artikulua. Sartzen ez diren prestazioak.

Zeregin hauek ez dira sartzen zerbitzuan:

- ✓ Etxe berean bizi diren familiako beste kide batzuei laguntzea, zerbitzuaren erabiltzailea pertsona bat denean.
- ✓ Erabiltzailearen etxebizitzan garrantzitsuak diren gauzak konpontzea.
- ✓ Osasun izaerako zereginak eta oro har espezializazioa dakarten zereginak.
- ✓ Gizarte laguntzailearen iritziz sartu behar ez diren beste batzuk.

IV. KAPITULUA ZERBITZUA EMATEA

17. Artikulua. Erabiltzailea onartzea.

Prozedura hauxe eramango da zerbitzuaren prestazioen erabilera onartzeko:

Zerbitzuaren eskaera.
Gizarte laguntzailearen proposamen teknikoak.
Zerbitzuaren kontzesioari aldeko edo kontra diktamena ematea.
Organo eskudunaren erabakia.
Zerbitzua erabiltzeko kontratua izenpetzea.

18. Artikulua. Zerbitzuaren eskaera.

Araudi honetan arautzen diren prestazioak behar dituzten pertsonak udaletxean beteko dute eskaera orria. Zerbitzua zergatik behar duten azalduko dute eskaera orrian, eta horrekin batera dokumentazio hauxe aurkeztuko dute:

- ◆ Erabiltzailea izango den pertsonaren NAREN fotokopia.
- ◆ Gizarte Segurantzaren edo beste edozein osasun asistentziaren kartillaren fotokopia.
- ◆ Daukan gaisotasun edo ezintasun egoeraren txosten medikoa.
- ◆ Erabiltzailearen edo, hala badagokio, elkarbizitzako unitateko kideen hileko dirusarreraren justifikagarria.
- ◆ Errenta adierazpena, edo Foru Ogasunak egindako ziurtagiria, zergadun gisa ez dela agertzen ziurtatzeko, hala badagokio.
- ◆ Familiaren diru egoeran eragiten duten aparteko gastuen justifikagarria.
- ◆ Erabiltzailearen eta familia nukleoaren, hala bada, ondasunei buruzko ziurtagiria, Foru Ogasunak egindakoa.
- ◆ Zinpeko adierazpena, azken 5 urteetan ondasunik ez duela eskualdatu adierazten duena.
- ◆ Zinpeko adierazpena, onuradunaren edo, hala badagokio, familia nukleoaren dirusarrera eta ondasunena.
- ◆ Gizarte laguntzaileak edo Gizarte Zerbitzuetako batzordeak interesgarri iritzi dezakeen beste edozein dokumentazio.

19. Artikulua. Gizarte laguntzailearen proposamen teknikoa.

Aipatu dokumentazioa jaso eta aztertu ostean, dagokion proposamen teknikoa egingo du gizarte laguntzaileak; zerbitzua emateari buruz egokia den edo ez agertu behar da proposamen horretan. Zerbitzua ematea egokia izanez gero, hauek agertuko ditu proposamen teknikoak: helburuak, intentsitatea orduetan, zerbitzuak zein lan espezifiko duen eta erabiltzailearen diru aportazioa (portzentajea) zerbitzua finantzatzeko, eta gero zerbitzua erabiltzeko kontratuan adieraziko da hori.

20. Artikulua. Batzordearen proposamena.

Gizarte Zerbitzuetako batzordeak diktaminatuko du gizarte laguntzaileak egindako proposamen teknikoa, aldeko edo kontrako iritziaz.

21. Artikulua. Erabakia.

Gizarte Zerbitzuetako batzordearen diktamena Udaleko organo eskudunari bidaliko zaio (alkateari edo Gobernu Batzordeari), zerbitzuaren kontzesioari buruz erabaki dezaten. Akordio horrek hauek agertuko ditu: zenbat ordu izango duen astean zerbitzuak, zein zerbitzu mota izango den eta zein diru aportazio egin behar duen erabiltzaileak. Erabaki horren berri emango zaie eskatzaileari eta etxeko laguntza zerbitzua eman behar duen enpresari.

22. Artikulua. Zerbitzua erabiltzeko kontratua sinatzea.

Zerbitzuaren kontzesioaren eskaerari buruz organo eskudunak erabakia hartu ostean, zerbitzua erabiltzeko kontratu bat izenpetuko dute zerbitzuaren erabiltzaileak, zerbitzuaren kontzesionarioak eta gizarte laguntzaileak. Kontratu hori organo eskudunaren akordioarekin batera joango da, eta aspektu hauek adieraziko dira kontratuan:

- Erabiltzailearen eta zerbitzua ematen duen enpresako langilearen datuak.
- Asteko zerbitzu orduen kopurua, ordutegia eta asteko egutegia.
- Zerbitzu mota; zehatz zehaztuko dira hor zein lan egin behar duen enpresa kontzesionarioko langileak.

23. Artikulua. Zerbitzua emateari uko egitea.

Uko egin ahal izango diote zerbitzua emateari, honelako kausaren bat izanez gero:

Araudi honetako 12. artikuluan ezarritako zerbitzua erabiltzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez badira.

Beste erakunde edo zerbitzu bati egokituz gero laguntzea.

Behar bezala oinarritutako beste edozein kausa izanez gero.

24. Artikulua. Eskaera berriro egitea.

Laguntza emateko eskatzen diren baldintzaren bat bete ez izanagatik ukatu diren eskaerak ez dira berriro aztertuko, egoera hori modu nabarmenean aldatzen ez bada.

25. Artikulua. Zerbitzua iraungitzea.

Kasu hauetan iraungiko da zerbitzua ematea:

- Zerbitzua behar ez izatea gehiago, egoera sozioekonomikoa eta familiara aldatu zaizkiolako.
- Hil egin delako.
- Zahar Etxe baten sartu delako.
- Beste udalerrri batera eraman dutelako.
- Erabiltzaileak uko egin diolako zerbitzua erabiltzen jarraitzeari.
- Zerbitzua erabiltzeko kontratuan ezarritako baldintzak eta konpromisoak bete ez dituelako.
- Behar bezala justifikaturik dagoen beste edozein.

26. Artikulua. Zerbitzua ematea.

Kasu berezietan izan ezik, pertsona bakoitzarentzat ezarritako egunetan eta orduetan emango dira zerbitzuan aipatzen diren lanak edo zereginak.

27. Artikulua. Dedikazioaren maiztasuna.

Arau hauen arabera emango da etxeko laguntza zerbitzuaren ordutegi intentsitatea:

-Etxeko zerbitzua:

⇒ Otordua prestatzea sartzen da: gehienez ere astean 7,30 ordu.

⇒ Otordua prestatzea sartzen ez bada: gehienez ere astean 4,30 ordu.

-Pertsonari laguntzeko zerbitzua edo zerbitzu biak:

⇒ Pertsona bat (1) bada lagundu behar dena: gehienez ere astean 15 ordu.

⇒ Lagundu beharreko pertsonak 2 edo gehiago badira: gehienez ere astean 20 ordu.

28. Artikulua. Zerbitzu egunen egutegia.

Astehenetik ostiralera arte emango da zerbitzua, urte osoan, jaiegunetan izan ezik. Edoze-lan ere, zerbitzurik gabeko egun gehiago deklaratu ditzake Udalak, aldi horretan zerbitzurik ez ematea justifikatzen duten gora-behera bereziak gertatzen direnean. Modu berezian zerbitzurik gabeko egunak deklaratzuz gero udal akordioak, zergatik den hori behar den bezala adierazi beharko duelarik, horren berri emango zaie erabiltzaileei eta zerbitzua ematen duenari.

29. Artikulua. Zerbitzuaren kontrola.

Zerbitzuaren kontrola, jarraipena eta koordinazioa Udalak eramango du, gizarte laguntzailearen bitartez.

V. KAPITULUA FINANTZAKETA

30. Artikulua. Finantzaketa.

Hauek egingo dituzten diru aportazioez finantzatuko da Etxeko Laguntza zerbitzua:

- 1) GIZARTEKINTZAK – Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Segurantzako saila –; zerbitzua subentzionatuko du Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Oinarritzko Sarearen Hitzarmenaren eraskin ekonomikoan urtero ezarriko den zenbatekoan.
- 2) Zerbitzuaren erabiltzaileak; diru aportazio bat egingo du, dituen baliabideen arabera, Araudi honetako 31. artikuluan arautu den moduan.

- 3) Arrasateko Udalak; zerbitzuaren kostu errealaren artean eta Foru Aldundiko dirulaguntza eta zerbitzuaren erabiltzaileen diru aportazioak batuz ateratzen den kopuruaren artean dagoen aldea finantzatzeko du.

31. Artikulua. Erabiltzailearen diru aportazioa.

Zerbitzuaren finantzaketan parte hartu behar du erabiltzaileak; zerbitzua emateko akordioan ezartzen den kopurua (zerbitzuaren kostuari buruzko portzentajea) jarriko du.

Hala ere, ez dute aipatu diru aportazioa egingo elkarbizitzako unitate bat osatzen duten erabiltzaileak; zerbitzua eskatu den urteari dagokion Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren kopuru berdina edo txikiagoa lortu duten bi pertsonak osatzen dute unitate hori.

32. Artikulua. Eskatzaileen dirusarrerak.

Ettxeko Laguntza zerbitzua egiteko, bakarrik bizi den pertsona baten kasuan, "gehieneko dirusarrera"tzat joko da, Lanbidearteko Gutxieneko Soldatari bere laurdena kendu eta hortik ateratzen den kopurua. Kopuru hori berori gehitu egingo da elkarbizitzako unitateko den pertsona bakoitzeko. Elkarbizitzako unitate hori etxe berean bizi diren pertsona guztiek osatzen dute, berdin dio zein harreman duten haien artean.

"Dirusarrera"tzat zenbatuko dira, Araudi honetarako, hemen zehazten direnak:

-Eman beharreko zerbitzua pertsonari laguntzeko bada:

- * erabiltzailearen eta ezkontidearen dirusarreraren %100.
- * gurasoen dirusarreraren %100 (adin txikikoak direnean).
- * eskatzailearen oinordekoen dirusarreraren %100, azken 5 urteetan eskatzaileak bere alde ondasunak eskualdatu baditu.

-Eman beharreko zerbitzua etxean laguntzeko bada:

- * familia unitateko kide guztien dirusarreraren %100.

-Eman beharreko zerbitzua pertsonari nahiz etxean laguntzeko bada:

- * familia unitateko kide guztien dirusarreraren %100.

Dirusarreratzat joko dira:

- 1) Pentsioak eta soldatak.
- 2) Diruaren legezko intesarekin bat datorren portzentajea, diruetxeetan gordailuan utzitako kapitalaren interes moduan, gehienez ere gordailuko 5 miloi arte. Kopuru hori gaindituz gero, ezarritako kostuaren %100 kontatuko da.
- 3) Ondasun higigarrien eta higiezin errentak.
- 4) Ohiko etxebizitzakoak ez diren jabetza, lursail edo ondasun higiezin katastro balioaren %10.

33. Artikulua. Diru aportazioa kalkulatzeko formula.

Erabiltzaileak egin behar duen diru aportazioaren zenbatekoa lortzeko, eragiketa hauek egingo dira:

- Elkarbizitzako unitateko dirusarreraren kreditagiriak jasotzea.
- Dirusarrera libreak kalkulatzeko, eta deskontatu kengarrizat jotako gastuak.
- Dirusarrera libreei buruz baremo ekonomikoa aplikatzea. (1. ERASKINA)

Gastu kengarrizat jotzen dira:

- Etxebizitzaren alokairua.
- Seme-alaben eskolak.
- Ohiko etxebizitza erosteko maileguak.
- Ettxeko zerbitzu partikularra.
- Gaisotasuneko gastuak, Gizarte Segurantzak estaltzen ez dituenak.
- Une bakoitzean Gizarte Zerbitzuetako batzordeak kengarrizat jotzen dituenak.

VI. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA SANTZIOAK

1. SEKZIOA ARAU HAUSTEAK

34. Artikulua. Arau hauste motak.

Toki Korporazioetako Zerbitzuen Araudiaren arabera, arinak, larriak eta oso larriak izango dira arau hausteak.

Arau hauste arinak izango dira:

- Atzeratzea kontzesionarioa bete behar dituen obligazioetan.

- Ez obeditzea Gobernu Batzordearen akordioei nahiz alkatetzaren erabakiei.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailaren ikuskatzearen esku ez jartzea.

Arau hauste larriak izango dira:

- Santzio arinak sortzen dituzten egintzetan erortzea behin eta berriro kontzesionarioak.
- Emandako zerbitzu publikoa ondo ez erabiltzea.
- Kontzesioaren gaia ez den beste zerbitzu bati buruzko jarduera bat burutzea.

Arau hauste oso larriak izango dira:

- Kontzesionarioaren oinarritzko obligazioen arau hauste larri-larria.
- Arau hauste larriak behin eta berriro izatea.
- Kontzesionarioak jarduera ez burutzea araudi honetan aurrikusitako baldintzetan.

2. SEKZIOA SANTZIOAK

35. Artikulua. Santzioak.

Izaera arineko arau hausteei 10.000 pezetatik gora egingo ez duen santzio bat ezarriko zaie, arau hauste bakoitzeko.

Izaera larriko arau hausteei 100.000 pezetatik gora egingo ez duen santzio bat ezarriko zaie, arau hauste bakoitzeko.

Izaera larri-larriko arau hausteei 150.000 pezetako santzioa ezarriko zaie lehenengo aldiz, eta behin eta berriro hautsiz gero araua, kontzesioa iraungitzat deklaratu ahal izango dute.

VII. KAPITULUA KONTZESIOA IRAUNGITZEA

36. Artikulua. Kontzesioa iraungitzeko kausak.

Zergatik iraungiko den kontzesioa:

- Epea bete egin delako.
- Kontzesionarioak uko egin diolako.
- Kontzesioa emateko izandako baldintza sozioekonomikorik ez dagoelako.
- Araudi honetan xedatutakoa bete ez delako (larria denean).
- Zerbitzua txarto eman dutelako.

ORDEZKO ZUZENBIDEA.

Araudi honetan aurrikusten ez den guztian hauei lotuko zaie: batetik, aplikatzeko dagoen indarreko legerian xedatutakoari eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak eta GIZARTEKINTZAK – Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako saila– argitaratutako orientazioei eta arauari.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Derogaturik geratzen da Arrasateko Udaleko Etxeko Laguntza zerbitzuaren araudia. Araudi hori 1994ko martxoaren 25ean egindako bilkuran onartu zuen Udalbatzarrak behin betikoz, eta haren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 1994ko apirilaren 20an, 72. zenbakian.

BUKAERAKO XEDAPENA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizilean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean Araudi hau.

1. ERASKINA

DIRUSARRERAKAPORTAZIOAREN %KOA

10.000 arte %3

10.000tik 14.999ra %5

15.000tik 19.999ra %7

20.000tik 29.999ra %9

30.000tik 39.999ra %11

40.000tik 49.999ra %13

50.000tik 59.999ra %15

60.000tik 69.999ra %17

70.000tik 79.999ra %20

80.000tik 89.999ra %24

90.000tik 99.999ra %28

100.000tik 109.999ra %29

Horrela hurrenez hurren